

# HERNANIK kronika

2004 urtea  
Apirilak 1  
Osteguna  
Alea: 1065  
[www.kronika.net](http://www.kronika.net)

## APIRILEKO KULTUR AGENDA

### Musika Bandak hasiko du apirileko egitaraua film-etako soinu banden kontzertuarekin

- Kontzertua bihar da Biterin 20:00etan eta larunbatean Buruntzako koruen topaketa, Parrokian, 20:00etan  
■ Jardunaldi Extremeñoak larunbata eta igandean dira eta Dantzari Festa apirilaren 19tik 25era.

UDALEKO Kultura Sailak atera du apirileko kultur agenda eta Musika Bandaren kontzertuak emango dio hasiera, datorren ostiralean. Film ezagunetako soinu bandak joko dituzte, pelikuleta irudiek lagunduta: Harrietarrak; Zorba Grekoak; Ona, itsusia eta txarra; Misioa; *Flashdance....what a feeling*; suzko karroak; fantasma harrapatzaleak; eta Gladiadorea pelikulatako soinu bandak entzuteko aukera izango da, Zipri Otxandorenak zuzenduta. Bihar, ostirala, 20:00etan Biterin.

Larunbatean, berriz, XV. Buruntzaldeko Zirkuituko Koru topaketa izango da, Kantuz abesbatzak antolatuta. San Joan Bataiatzailea Parrokian da, arratsaldeko 20:00etan. Kontzertuan eskuadako koruek kantatuko dute eta Hernaniko Kantuz eta Ozenki abesbatzak haratuko dute parte.



Musika Banda Biterin, iaz emandako kontzertu pedagogikoan.

**Jardunaldi Extremeñoak**  
Datorren larunbata eta igandean Extremadurari buruzko jardunaldiak dira. Larunbatean Biterin bideo eta poesiak izango dira eta igandean festa izango da Latsunbeko kirol pistan, Extremadurako dantza, pro-

duktu eta informazioarekin.

**Kontzertuak, dantza eta erakusketak**  
Biteriko erakusketen barruan, Gipuzkoako trenei buruzkoa jarriko dute apirilaren 19an. Apirilaren 19an baita

ere, hasiko da Dantzari Festa eta astebete iraungo du aurten edizioak. Hilaren 29an Ozenki Abesbatzak kontzertua emango du Jubilatu etxean eta egun berean ipui kontalaria dago Biterin 3tik 7 urterera arteko umeentzat.

#### APIRILEKO KULTUR EGITARAUAK

- Apirlak 2, ostirala:** Musika Bandaren kontzertua. 20:00etan Biterin.  
**Apirlak 3, larunbata:** XV. Buruntza Zirkuituko Koru Topaketa. 20:00etan San Joan Bataiatzailea Parrokian.  
**Apirlak 3:** Aurrentzako antzerkia. Muzzikiren bidaia harriarria. 11:00etan, Biterin.  
**Apirlak 3-4:** Extremadurako XII. Jardunaldiak.  
**Apirlak 19-maiatzak 4:** Gipuzkoako Trenak erakusketa. 18:00-20:00, Biterin.  
**Apirlak 19-25:** Dantzari Festa.  
**Apirlak 29:** Ozenki Abesbatza eta Doinu-Zale musika eskolako ikasleak. 19:30etan Biterin.  
**Apirlak 29:** Ipui kontaketa. 17:30etan eta 18:00etan Biterin.

### 'Muzzikiren bidaia harriarria', umeentzako antzerkia larunbatean

POK Produkzioak aurkeztuta Muzzikiren bidaia harriarria antzerkia egingo dute datorren larunbata goizeko 11:00etan Biterin, 3-9 urte arteko haur eta gazteenetako. Aktoreak Olatz Beobide eta Idoia Sagarzazu dira eta musikaria Pascal Gaigne.

Muzzikik munduan barrena bidaia egingo du eta mundu osoko musikak, ipuiak eta kontuan entzuteko aukera izango du eta herrialde horietako animaliak, mendiak eta itsasoak izango dira protagonista. Txinan, Basamortuan, Himalayan, eta Afrikan murgilduko da Muzziki eta animalia eta kultura desberdinei buruzko aipamenak egingo dituzte.

#### OIALUME ZAR SAGARDOTEGIA

Asteartetik  
larunbatera  
zabalik.

OIALUME AIZOA  
943 55 29 38  
943 33 21 27

#### TTILIN \* TTOLON MAIATE

BELAR DENDA  
- DIETISTA  
- NATURISTA  
- MEDIKA  
TERAPIA NATURALAK  
KONTSULTAK  
Ttilin Ttolon Belardenda  
Txirrita 10 - Tel.: 943 55 56 94

#### ALBERRO SAGARDOTEGIA



Sagardo Naturala  
tolare  
Hernaniko sagardoa  
943 550019  
Santa Barbara auzoa, 61

### 'Elikadura eta transgenikoak' hitzaldia gaur Andragoton

OSASUNARI buruzko astea ari dira egiten Andragoto ateneoan. Elikadura eta elikagai transgenikoei buruzko hitzaldia emango dute gaur, Lurdes Sarasola eta Javier Bellosok, arratsaldeko 19:30etan.

Bihar, bestalde, gorputz posturrei buruzko hitzaldia emango du Maite Gomez Zapiain fisioterapeutak, 19:30etan eta hitzaldi honekin bukatuko da osasunari buruzko astea Andragoton. □

### Hitzaldia gaur Urumea ikastolan

FAMILIA eta ikasleen arteko era-soak gaieren gainean hitzaldia dago gaur Urumea ikastolan. Elkano kaleko ikastetxe liburutegian da hitzaldia, 19:00etan. □

### 'GR 4' bertso txapelketa igandean Orion

HERNANI, Orio, Lasarte eta Oiartzun ari dira jokatzen GR 4 bertso txapelketa eta datorren igandean izango du Hernaniko taldeak bigarren saioa. Orioko taldearen kontra neurituko da Orion bertan. Hernanitik kantatuko dutenak dira: Iñaki Zelaia, Joxe Angel Aranburu eta Xabier Legarreta. □

### Hirigintza Batzordea gaur Udaletxean

HIRIGINTZA Batzordea bilduko da gaur Udaletxean, arratsaldeko 18:00etan eta 6 puntu daude eztabaidatzeko. Eraikinak berritu eta egokitzeo eskariak dira puntu gehienak, eta Ereñotzuko babes ofizialeko etxeei buruzko konsulta bat ere badago. Ibarluze poligonoan industria jartzeko SCIONER SL enpresak egindako eskarria da beste puntuatko bat. □

## Artur Casas igerilariak 2 urrezko domina

ARTUR Casas igerilari herrikoiak bi urrezko domina irabazi ditu Euskadiko txapelketan, Junior mailan. Casasek denbora onena egin zuen 100 m eta 200 m bular probetan, eta 50 m-tan berriz, brontzezko domina irabazi zuen.

Artur Casasek ez ezik, Hernaniko talde osoak egin zuen txapelketa ona. Olatz Altunak brontzea irabazi zuen 100 m libretan, Europaroko eta Olinpiadetarako aurreseleksionatuta dauden igerilarien atzetik. Era berean, bai Olatz Altunak eta bai Mañel Aizpurua Spainia mailako minimak lortu dituzte, 50 m



Hernaniko igerilariak lan bikaina egin dute Euskadiko txapelketan.

eta 200 m libretan, hurrenez hurren. Oihane Sanz berriz, laugarren gelditu zen 100 m libretan, Estatuko minimatik dezima batera. Txapelketan

parte hartu dutenak: Alvaro, Iturrioz, Casas, Aizpurua, Aldeabe, Isuzkiza, Olatz Altuna, Izagirre, Jimenez, Sanz, Estibariz eta Anne Altuna. □

### JASOTA BEZALA

#### Gai politikoak plenoan

"Plenoan ez da legislatura osoan gai politikorik ukituko" erantzun dio Rekondok, Kontxi Santxizen heriotzaren aurrean BILDU HERNANI aurkeztutako mozioari. Hori giroa berotzea eta Ertzaina kriminalizatza da, gaineratu du.

Garbi esanda, hemen kriminalizazio bakarra, martxoaren 11ko gertakariaren ondoren, Madrilek puntuz-puntu ipinitako gidoiari jarraituz, ezker abertzaleak jasan duen eraso bortitza izan da eta kriminalizatzaile nagusiak, Rekondo, Amonarrai eta Mercadoren alderdiko zuzendariak izan dira. Hernanin eta Euskal Herrian hori izan da giro berotze bakarra eta ondorioak begibistan dira, Angel eta Kontxien heriotzak.

Biolentzia guztien aurka ager-

tu ohi dira eta guztioen eskubideen alde, baina, oraingoan ere garbi utzi dute eskubideak batzuentzat direla soilik baliozko, eta bestentzat zigorra, espoxea eta heriotza. Garbi dago hauentzat jokaera hori ez dela biolentzia, demokratikoa baizik.

Egia ezkutatu nahian, Plenoan ez dela gai politikorik ukituko diote. Barregarria litzateke aitzakia hutsa ez balitz, bestela, ez al da erabaki politikoa Plenoan urteko aurrekontuak onartzea?, ez al dira gai politikoak Plenoko erabakiak?, ez al zarete zuek udal politiko profesionalak?, zer nolako erabakiak hartzen dituzue?. Dena dela, erabaki honekin, Rekondok eta bere morroiek, politikotzat jo dute Ertzainaren izaera eta jokaera, eta berotzen diren heinean ondo baino

hobeto betetzen dute bere papera. Garai batean Rekondok idatzitakoak burura etorri zaizkigu, idatzi hartan aipatzen zuen nola parte hartu zuen Ertzainak erabili behar zuen metodoen diseinuan. Nola agertu oraingoan aholkuak ondo ikasi zituztenen aurka?.

Hernaniarren eskubideak berriro urratuak izan dira, berriro ere Hernaniko GEHIENGOA hitzik gabe utzi nahi izan dute eta horren aurrean berriro diogu, gizeskubide eta adierazpen-askatasunaren alde borrokatzetan jarraituko dugula eta behar diren mozioak aurkeztuko ditugula. Aurkezterakoan, bertan ikusiko gara.

**Manuel Fraile**  
Bildu Hernani herri plataformaren izenean

### ESKOLA KIROLA



### ASTEBURUKO EMAITZAK

Futbola	Taldeak
A lebin M utilak	Elizatxo A-Urum ea B
A lebin M utilak	Elizatxo B-Langile A
A lebin M utilak	Langile C-Langile B
A lebin M utilak	Im aculada-Urum ea A
A lebin N eskak	Elizatxo-Urum ea
A lebin N eskak	Langile A-Langile B
A lebin N eskak	Langile B-Urum ea
<b>Boleibola</b>	
Infantil N esk	Andoain K-Langile
Infantil N esk	Elizatxo-Esocipois
Infantil M util	Presentación-Im aculada
Kadeteak	Im aculada-Formuna

**Benjamin talde guztiak atlétismo probak izan zituzten Sagastialdeko pistan. Argazkian gazte bat luzera saltoa egiten eta atzean hondarrera salto egiteko koadrila zai.**

**dobEra**  
BUSKARA ELKARTEA

Hernaniko Udala

### DOBERA SARIA II.EDIZIOA

3.000 EUROKO DIRU LAGUNTZA

HERNANIRI BURUZKO LAN BAT SARITUKO DA:

- Banaka zein taldeka egin daiteke.
- Lana euskaran izango da.
- Lana egiteko epea: 6 hilabete.
- Proposamenak aurkezteko epea apirilaren 30a.
- Agiri guztiak Dobera Elkartera bidali behar dira. (Larramendi - 11 ; Telf: 943-332799)



EHEk Hernanin emandako prentsurrekoa, asteartean.

## Euskal Herrian Euskarazek Hizkuntz Eskubideen Egunera joateko dei egin du

■ Datorren igandean da Lesakan ■ Hernanitik autobusak irtengo dira goizeko 09:00etan.

EUSKAL Herrian Euskaraz taldeak Hizkuntz Eskubideen Eguna antolatu du datorren igandean, Lesakan. EHEk dioenez Euskal Herrian sistematikoki urratzen dira hizkuntz eskubideak eta estatuek "suntsipen estrategia darabilkite euskararen eta normalizazioaren aurka". EHEren iritziz euskararen garapenerako kaltegarria da "euskarak estatus legal bakarra ez izatea, ofizialtasun eza eta lurrarde osorako hizkuntza politika bakarra ez izatea". Hizkuntza eskubideen alde indarrak biltzera dei egin du EHEk eta zentzu horretan antolatu dute Hizkuntz Eskubideen Eguna Lesakan.

Hernanitik autobusak ate-

rako dira, goizeko 09:00etan eta 21:00etan egingo dute buelta. Txartelak Lete, Garin eta Txilin daude salgai. Hernaniko EHEk dei egin die aldarrikapenekin bat egiten duten herritarrei Lesakara joateko.

#### Igandean goizetik gauera

Lesakan hasi goizeko 10:30etan eta 20:30ak arteko egitaraua dago: Hizkuntz Eskubideen Aldeko Nazio Bilkura egingo da, Euskalgintzaren Gunea, Ofizialtasunaren aldeko manifestazioa, Herri Bazkaria (autobusean izango da txartelak hartzeko aukera), txaranga, pailazoak, dantzaldia eta abar. □

### HITZ BITAN

#### PEÑA OTAÑO

**Martin Alberdiri agurra.** Martin Alberdiri agurreko bazkaria egingo diote larumbatean Peña Otaño elkartean. bazkarira joan nahi duena Iñaki Gorrikin harremanetan jarri. Bazkaria 14.00etan da. □

ZERBITZUAK		FARMAZIAK	
<b>TELEFONOAK</b>		<b>FARMAZIAK</b>	
■ Taxiak:	943 550093	■ Egunez:	Gomez Justel
■ Udaltzaingoa:	943 333288	Kale Nagusia 14	943 554892
■ DYA:	943 464622	■ Gauzez:	Zatarain
■ Autobusak:	943 556662	Andoain. Arteta z/g	943 290802
■ Anbulatorioa:	943 006666		
■ Jokalari anonimoak:	943 331103		

### IRAGARKI MERKEAK

Hernani inguruko jatetxe batean barrarako zerbitzari bat behar dugu. Ibilgailua behar da. Deitu: 943 55 02 54 (asteleheneitik-ostiralera) edo 608 12 07 32

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebral, reflexologia, auriculoterapia,...: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Sta Barbara 42)

Jangelako zerbitzari bezela lan egingo nuke asteburuetan. Deitu.: 676 29 22 41

**AMEGAR**

Etxe tresnak  
Altzariak

Elektrogailuak  
TB- Bideoak-  
HI-FI-Opariak

Sukalde altzariak

Tel.: 943 55 11 25  
Faxa: 943 55 16 03

**HERNANI HIZKUNTZAK ENGLISH**  
Gure Inglesetxea

Hurrengo astean klaseak izango dira, astelehena, asteartea eta asteazkenean.

Oporretatik bueltan, apirilaren 19an, astelehena hasiko gera berriz.

**Alan / Joe**  
943 33 11 08  
KALE NAGUSIA 41, 1

**KARMELO ALKORTA OIARTZABAL - HERNANIARRA ETA  
ESPAINIAKO GERRA ZIBILEAN (1936-1939) IBILITAKOA**

## Hernaniar bat Gerra Zibilean

Itsaso Pacheco - Leire Pacheco  
**INMACULADA IKASTETXEA**

Karmelo Alkorta Oiartzabal 1914ko uztailaren 31ean jaio zen, Hernanin. Akerregi auzoko Zumai baserrian jaioa eta biziakoa 1914tik 1992 arte, eta, bertan bere bizitza osoan lan egindakoa da. Espainiako Gerra Zibilek bete-betean harrapatu zuen eta oraindik gozoan dauzka orduko gertaera eta kontuak.

Nolako bizitza egiten zenuen gerrara joan baino lehen? Edozein baserritarrek egiten zuena. Baserriko abereak zaindu, mendian belarra ondu, soroan eguneroko jatenak egin, baratzean eta horrela...

Eta, gerrara borondatez ala behartuta joan zinen?


Soldaduskan bi urte egin eta etxera bueltatu nintzenean batera asmorik ez nuen gerrara joateko baina bi anai gerran ziren dagoeneko eta batek ez zuen batere instrukziorik ez fusilarekin ez ezerrekin. Orduan anaia etxera ekarrarazi eta ni joan nintzen bere partez. Beraz, etxeoetatik, anaia Jexux eta biok joan ginan.

Non ibili zinen?

Aurrena Bilbora eraman gintzutzen, handik, Balmasedara "han kozinan sartu nintzen", gero oinez, Andorraino mendiz, eta mendi haietan ibili ginen lau urtez aurrera eta atzera. Bukatutakoan Leridara jeitsi ginen eta handik Madrilera; Madrilen altaboz batetik nire kintakoak Murtziara joan behar genuela eta kamioietan kargatu eta Murtzian lizentziatu nintzen.

Kontakiguzu frenteko egun bateko gora beherak

Oso gogorra zen. Behin, gogortzen naiz, lau gau eta egun begirik itsutu gabe geundela, guardia egiten, lo hartu nuen, momentu bat besterik ez zen izan baina, ofizialak harrapatu eta hurrengo goizean fusilatu egingo ninduela esan zidan. Ni etsita! Bainha hurrengo goizean kapitainak izugarrriak esan zizkion ofizialari, ea ez al zekien zein fuertea ginen eta zenbat aguantatzen genuen, ea ez al zen fijatu lau egun eta lau gau guardia egiten ari ginela jarraian, kontu handiarekin ibil-



**Ezkerretik: Karmen Irazusta emaztea, Gaizka, eta Karmelo Alkorta bera.**

tzeko euskaldunen kontra! Eta gero niri: "Alkorta! ¿Sabes hacer algo en la cocina?" Eta nik "algo ya he aprendido en el caserío si" (txikitán beti erdi gaixo eta beti amaren atzetik ibiltzen bainintzen eta sukaldan zerbaik ikasitakoa behintzat) eta kapitainak "pues desde ahora organizarás la cocina porque si no nos va a matar la comida antes que la guerra". Geroztik, ni fusilatu nahian ibilitako ofizial hark, sukalderra etorri eta galdetzen zidan "Korta, tienes café?" nik ezta erantzun ere, nik emanda ez zuen edan, berak hartu behar izaten zuen, edan nahi bazuen.

**Beraz, ejerzitoko ofizialak onak bai baina bestelakoak ere baziren.**

Bai horixe, batzuk euskaldunak asko errespetatzen zituzten, besteak ordea, gorroto! eta horiek kontuz ibili beharra zegoen. Nik horretan, kapitainaren zortea izan nuen.

**Eta zauriak, izan al zenituen zauriak?**

Bai, zauriak bai. Tiro batek hankezurrean jo ninduen eta oraindik ere hirurogeita bost urte pasa eta gero arrastoa hementxe daukat (eskua hankezurrera eramateen du Karmelok) eta okerrena ez zen hau izan, gerra bukatzeko bezperan, mendian galdu, sukaldaroko ura behar nuela eta, eta iztarretainoko elurtean pasa behar izan nuen

gaua, mendiko txabola baten teilitupean pasa nuen. Eta geroago gerra bukatu zela jakin genuenean kapitainak ospitalera joan nahi al nuen galdeitu zidan baina nik etxera joateko gogo, eta Andorrako zaldi batzen gainean jaitsi nintzen Leridaino, sukaldaria behar baintzuten beraiek ere eta geroztik nire hankak ez dira behin ere lehengoak izan, izotza gaua txarra baita. Hala ere, oraindik poliki, baina banabil eta ez da gutxi.

**Gerrak ba al du ezer onik?**  
Bat ere ez! Gerrak ondamendia besterik ez du ekartzen, familiaik hondatu, miseria herritan, base-rritan lana galanki egin beharra eta guzti honen saria: gosea galanta eta arrazionamenduko kartilla, "kuarentaunuan gorrik ikusi giñun".

**Gizonezkoak frentera eta emakumezkoak etxearen, zure ustez emakumeek gutxiago sufritu ote zuten?**

Ez, emakumeak ere gaizki! Lan guztiak bere gain, umeak gose, garai latzak izan ziren denen-tzako, gogoratzearekin bakarrik ere gaizkitu egiten naiz...

**Eta Francoren garaian bizi eta gaur bizi zer esango zenuke?**

Oso diferentea da, orduan gau eta egun lan egin eta ez genuen dirurik sortzen oinarrizkoa lortzeko ere; gaur egun berriz lana egin beharra dago, noski, baina

nahi den guztia lortzen da. Egin ezazu kontu: Garai hartan barrunna, taloa eta sardin zaharra besterik ez genuen jateko. Gaur berriz denetik eta gehiegiz, ez al da hala?

**Beraz, gaurko gazteak, zure ustez, askoz hobeto bizi gara zuek baino?**

Gauza askotan bai, hobeto bizi zarete. Gaur saiatuz gero lana sortzen da eta orduan dirua ere bai; gure garaian ordea lana ikaragarri egin behar izaten genuen eta ez genuen xoxarik ere ikusten. Orain... beste gauza askotan gogorra izaten jarraitzen du. Batzuk, edozein gauzaren gainean nahi dutena esatea libre dute, beste batzuk ordea, isildu egin behar dute, bestela, egunero hemen bertan ikusten ari garena... Hara! Jakin nahi al duzue gauza bat? Gerrarekin edo gerrak gabe euskaldunok oraindik garai latzak pasatzeko gaude... egin kontu zer esaten dizuedan, nik ez ditut ikusiko, aurten 90 urte beteko ditut eta... baina zuek bai, gazteak zarete eta hamaika gauza ikusteko biziko zarete oraindik.

**-Bueno Karmelo, gaurkoz bukatuko al dugu?**

"Bai, ondo, nahi dezuen arte, ni hementxe egongo naiz, sukaldetxoan periodikua letzen, telebista ikusten bestela... batzutan itzaltzeko gogoa ere ematen du baino... Bueno, bai agur, ondo joan!". □

### ZINE KRITIKA



"Eraztunaren jabea, erregearen itzulera" filmeko kartela.

## "Eraztunaren Jabea, erregearen itzulera"

Nadia Gonzalez - Mikel Marin  
**INMACULADA IKASTETXEA**

Izenburua: "erregearen itzulera"  
Iraupena: 201 min.

Zuzendaria: "Peter Jackson"  
Urtea: 2003

Film hau, trilogia bateko (Eraztunaren trilogia) azken filma da. "Eraztunaren erkidegoa", "Bi dorreak" filma baino hobeagoa zen eta, trilogiako azken filma, hau da, "erregearen itzulera" trilogiako hoberena.

Izugarrizko efektu bereziak, paisaiak, bataila itzelak... ditu, baino agian efektu berezi gehiegiz ditu eta horregatik pixkat gehiegizkoa da.

Azken filma baino, trilogia osoa miretsi egiten dut, bigarren filmean "Bi dorreak" nahiko burutugabea zen eta ikuskizunaren erdian norabidea galtzen zuen. "erregearen itzulera" pertsonaiak bere helburuetara zuzentzen ditu segurtasun handiagorekin.

Lehenengo filmean, batez ere, pertsonaiak aurkezten dira eta istorioari hasiera ematen zaio, bigarrenean, istorioa nahiko nahasia dago, hemen korapiloa gertatzen baita, horregatik trilogiako hasiera nahiko neketsua da...

Filmak hiru ordu eta erdi irauten duenez nekeza egin diezaguke. Filma batez ere gazteei gomedatuko genieke, dituen efektu bereziengatik, batailengatik, etab... □

# TXOKOA

INMACULADA IKASTETXEA

2004ko apirilaren 1a

5. zenbakia

Ikasleen Txokoa kaleratzen da  
Hernaniko ikastola eta ikastetxeek  
Hernaniko Udalarekin eta  
Hernaniko Kronikarekin egindako  
elkarlanari esker. Datozen hilabe-  
teetan jarraipena izango du.

## Lantegi arriskutsuak Hernanin

Jon Mikel Segovia - Unai Da Silva  
**INMACULADA IKASTETXEA**

BADAUZKAGU Hernanin hiru enpresak, Elektrokimika, Atofina eta Bakelite Ibérica, herritarrentzako eta batez ere langileentzako arrisku izugarria dutenak. Hiru hauek kimika edo petrokimika arloan arizen dira.

Hernaniarrok enteratzen ez garen arren, enpresa hauek material arriskutsuak garaiatzentzat eta maneiatzentzat dituzte, kamioietan eramanez. Baino, zer da kezkagarría? Ba hau da; Hernaniko biziagun gehienek ez dake zer egin behar den, enpresa hauetariko batetan isuri bat gertatuko balitz. Isuri bat edo istripu bat badagoela jakitean, zer egingo genuke? Horrelako kasuetan hauexek dira bete beharreko gomendioak:

- Sare elektrikoa deskonektatu.
- Ateak eta leihoak ondo itxi.
- Lintera bat hartu.
- Irratia piztu.
- Leku altutara igo

Eta hernaniar gehienok ez dugu informazio honetaz berririk.

### Minbizia eta binilokloruroa

Atofina, PVCA ekoizten duen enpresa kimikoa da. Azken hamabost urteotan, 27 langile hil dira minbiiziak jota, CCOOK dioenez.

Atofinakoek, berriz, minbizi kausuen eta beraien aktibitateen arteko erlazioa ezeztatu dute. Bestalde zientifikoki frogatu da binilo kloruroak minbizia (angiosarkoma hepatikoa) azal daiteke.

Ikerketa honekin ez zen ezer ere lortu, enpresak ez zuelako ikertzaleen lana batere erraztu.

Iazko udan Atofinako kaltetuei buruzko txostenak egin zedin lortu zen, baina bertan ez zaio auziari argi handirik eman. Minbizien jatorri erreala ezkutatu zen eta minbizia sor dezaketen produktuekiko esposizioa ezeztatu. Dena den IARC erakundeak (minbiziarri buruzko ikerketarako agentzia internazionala) adierazi du binilo kloruroak minbizia eragiten duela gizakiongan. Sustantzia honekin 20 urtez lanean eginez gero gibeleko minbizia (angiosarkoma hepatikoa) azal daiteke.

Esandako datu horiek guztiak ikusita, CCOOK-k salaketa jarri zion Atofinari,

segurtasun eta higiene baldintzak ez betetzeagatik eta Gipuzkoako fiskaltzak egoera honetan legez kanpoko iharduerak izan daitezkeela onartu du.

Aurreko guztiaren ondorioz esan daiteke hernaniarrok arriskuan gaudela. Zenbaterainoko da arriskua? Bermatzen al da segurtasuna? "Segurtasun-plana" eraginkorra al da? Iristen zaigun informazioa fidagarria al da? □



Arrisku handiko 3 enpresa dauzkagu.

## Orriaren egileak:



Ezkerretik eta goitik hasita: Jon Mikel Segovia, Nadia Gonzalez, Leire Pacheco, Miriam Rodriguez, Unai Da Silva, Mikel Marin, Rut Iturbe, Itsaso Pacheco.

## Bitxikeriak

Miriam Rodriguez - Rut Iturbe - INMACULADA IKASTETXEA



1836an itxura hau zuen gaurko Gudarien plazak.

**Udaletxeko enparantza.** Hau udaletxeko enparantzako grabado bat da, 1836an egindakoa. Grabado honetan Hernaniko "Azeri dantza" famatua ikus dezakegu. □



Paradorea 1944an.

**Lizeagako Paradorea.** Argazki hau 1944an egindakoa da. Lehen etortzen zen jendeak lo egiteko erabiltzen zen, baita ere jatetxe bat zegoen, eta dirua zeukan jendea joaten zen, oso garestia baitzen. Paradore hau erre egin zen eta horren ondorioz ez zen berriro erabili paradore bezala eta urte askotan erabili gabe egon da. Gaur egun oraindik Udalak ez du erabaki zertarako erabiliko duen edo zer eginago duen leku horretan. □



Hernaniko Udaletxea 1899an berritu zuten.

**Hernaniko Udaletxea.** 1875. urtean II. Gerrate Karlistan suntsitua izan zen. 1899.an Joakin Fernandez Ayarragaray (El Sevillano) arkitektoak berreraiki zuen. Estilo eklektikoa du. □